

Bizikomunitatea: Negozio Ideia Laburpena

BiziKomunitatea auzo eta etxebizitza-komunitateei energia-eraginkortasuna hobetzeko eta autokontsumorako energia berriztagarriak (eguzki-panelak, energia partekatua) ezartzeko aholkularitza eta laguntza eskaintzen dien enpresa da. Zerbitzuaren helburua ingurumenarekiko konpromisoa, kostu-aurrezpena eta tokiko komunitatearen parte-hartzea bultzatzea da. Abantaila lehiakorak dira tokiko eta komunitate mailako ikuspegi pertsonalizatua, instalazioan eta finantzazioan laguntza osoa eskaintzea eta energia berriztagarrietan oinarritutako ezagutza espezializatua, betiere ingurumen-inpaktua murrizteko helburu etikoarekin.

BiziKomunitatea GJH (ODS) helburuekin estuki lotuta dago. ODS 7, Energia merke eta ez-kutsatzailea, betetzen du, komunitateei energia berriztagarriak eskainiz eta karbono aztarna murriztuz. ODS 11, Hiri eta komunitate iraunkorrak, sustatzen du energia partekatzeko sistemak martxan jarrita eta ingurumenarekiko ardurak partekatuz. ODS 13, Klima-ekintza, ere laguntzen du, berotegi-efektuko gasen emisioak gutxituz eta komunitateak klima aldaketaren aurka kontzientziazatuz.

Enpresaren azterketan, aukera gisa energia berriztagarrien aldeko politikak eta merkatuaren gorakada nabarmentzen dira. Mehatxuen artean enpresa handien lehia eta teknologia aldaketan abiadura aipatzen dira. Indar gisa, pertsonalizazioa, tokiko arreta eta taldekideen ezagutza espezializatua nabarmentzen dira, eta ahultasunen artean hasierako baliabide mugatuak eta ezagunak ez izatea.

Forma juridiko gisa, kooperatiba aukeratu da, bere eredu kolektibo eta parte-hartzailea dela eta, irabaziak berrinbertsiora bideratzen dituelako eta komunitatearekin bat datorren etika sozial eta ekologikoa sustatzen duelako.

Taldea lau kidez osatuta dago: Jon Esteban (zuzendaria, finantza eta marketinaz arduratzen dena), Ibai Atutxa (energia berriztagarrien espezialista), Volney Alonso (komunikazio eta sare sozialetako espezialista), eta Kimetz Aguirre (teknikaria, eguzki-panelen instalazioaz eta mantentzeaz arduratzen dena).

Enpresan emakume eta gizonen arteko berdintasuna bermatzeko neurriak hartuko dira, hala nola soldata berdintasuna, lidergo postuetarako emakumeen sustapena eta lan-bizitza oreka ahalbidetuko duten ordutegi malguak. Azkenik, enpresaren logoa berdea izango da energia berriztagarria irudikatuz, eta bi izpiren bidez energia eta mugimendua adieraziko ditu, izenarekin batera.